

**STAR
FIGHTERS**
IZARTZAINAK
ALIENAK ERASOAN

MAX CHASE

desclée

UBI GALAXIA

MEIGWOR
EGUZKIA

MEIGWOR

ASTEROIDEEN
EREMUA

GI ESPAZIO-GUNEA



EGUZKIA

LUR PLANETA

ESNE BIDEA



PLANETA-
BIKOTEAK

HAIZE-ZIRIMOLA

**MAPARATU
GABEKO
GALAXIA**

MAKI GALAXIA

XION

COS-MOAT
GERUZA

STAR FIGHTERS IZARTZAINAK

***Eliteko zaintza-taldeak
galaxia babestuko eta defendatuko
duela zin egin du.***

***5012. urtea da, eta Esne Bidea galaxia
erasoetan dago***

Unibertsoko Gerraren osteko garaia da. Unibertsoa ia galaxia guztiak desagerrarazi ditu Unibertsoko Gerrak, baina Esne Bideko planetek bat egin dute Galaxiarteko Indarra sortuta: galaxia babesteko eta defendatzeko zaintza-taldea da.


Etorkizun handiko ikasle argienak baino ez dituzte onartzen Galaxiarteko Indarraren Akademian. Onartutakoen artean, kadete onen-onenak baino ez dira maila gorenera iristen.



Izartzain izatea bizitza osoa misio bati eskaintzea da: *Bakea espazioan*. Izartzainen esku daude arma aurreratuenak, espazio-ontzi azkarrenak... eta misio arriskutsuenak. Galaxiarteko Indarraren Akademiako ikasle guztiek izan nahi lukete Izartzain egunen batean.

Badakizu zer esan nahi duen horrek?





I. atala

—Alien inbasore arraioa, irentsi hautsa!
—oihukatu du Perik, asteroidea milioika zati dirdiratsu egin denean.

“Simulatzailea joko dute...” pentsatu du, ezkerrera itzulia eginda; gero, gora jo du, asteroidearen suzko arrastoak saihesteko.

Une honetan Galaxiarteko Indarraren espazio-gunetik mila milioi kilometrora dago. Zer esanik ez: Lur planetatik askoz urrunago. Han goian planeta urdin dirdiratsu bat ikusten da, diz-diz egiten duen izotz-eraztun batek inguratzen duena. Saturno! Begien aurrean duena sinistu ere ez du egiten Perik!


Ping! Sonarrak hauxe jakinarazi dio: zeharkatu beharreko hurrengo ingurua tiro-eremua da. Hau guztia ez da Lur planeta alienen erasotik salbatzea bezain erakargarria, baina, edonola ere, zabor kosmikoak suntsitzea ordura arte eskuartean izandako 3D bideo-jokoak baino askoz hobea da. Garai bateko telebista-satelite bat leherrarazi du, eta suziriak jaurtitzeko gailu bat zartatu. Asteroidea birrinduta geratu da.

—Saia zaitez ontzia prest izaten oraingoan, lamiozido halakoa! —oihukatu du Dieselek.

Perik albotik begiratu dio Dieseli: armen dorretxoan 2rrintze laserrak tripodeari lotzen ari da. Konturatu da ondoan duen tiratzaileak ez duela astro-arnesa lotuta. Edozein mugimenduk lekutik bidaliko du martetarra. Irri egin du Perik. Alboz jarri du espazio-ontzia, ahalik azkarrena.

—Iujuuu!

Iiiepa! Diesel jarlekutik erori da.



—*Ch'ach!* —bota du. Deselek beti hitz egiten du bere ama-hizkuntzan haserre dagoenean, eta ia beti dago haserre.

Flashak balira bezala geratu zaizkio begiak, eta tentetu egin zaio burua zeharkatzen dion ile-mataza. Ero antzean dabilenean, Deselek martetarraren itxura du, gizakiarena baino gehiago. Izan ere, erdi-martetarra erdi-gizakia da.

—Jomuga galarazi didazu! —kexatu da—. Esan nien bai, bigarren urteko kideren batekin jar nintzaten... Baita zera ere! Hasiberri buruarin hau egokitu behar ere!

—Tira... —esan du Perik—. Berriro arteztuko dut traste hau!

Perik barreari eutsi dio: “Ubeldu batek edo bestek ez dio kalterik egingo”. Goizean, Galaxiarteko Indarraren Akademiako entrenamendu-ariketa bitxi honetarako Perirekin jarri dutenean, Diesel sutan jarri da. Erdi-martetarra bigarren urteko kadetea da, armetan aditua eta txapelduna 3-D jokoetan. Hala ere, ez da konstelazioko izar dirdiratsuen.

Baina Peri bat dator Dieselekin kontu batean: oso bitxia da GIAko lehenengo mailako kadete bat hautatu izana ariketarako. Gainera, Peri ez da lehenengo mailako ikasle onena... hamalagarren postuan dago geologian eta hamargarren postuan borroka kosmikoan. Orduan, zergatik hautatu dute?

Egia esan, joan diren bi asteetan simulatzailean egin du bizimodua, ia atera gabe. Praktikatuta eta praktikatu ibili da, itsutu arte ia. Baina, noski, simulatzailea ez da benetako ontziak bezalakoa:

Saturnoko eraztunetan *looping* egitea, Pluton inguruan irristatzea...

Bat-batean, ontzia bortizki mugitu da ez-kerrera. Astro-arnesak tira egin dio Periri jarlekuaren kontra. Peri eginahalean ari da timoiaren kontrola berreskuratzeko. Dirudienez, ontzia U handi batean irristatu da eta abiadura handitu du.

—Zer gertatzen ari da? —Perik pantaila gainean ezarri behar izan ditu eskuak une batez, eusteko. Hegaldi-egokitzaileira jo du, energia-adierazlea ikuskatu du eta bide-bilatzaile holografikoari eman dio—. Ezer ere ez dabil ondo! —azaldu dio Dieseli—. Ontzia besteren batek kontrolatzen duela ematen du!

—Espazio-gunera itzularazten ariko zaizkizu —trufatu da Diesel—. Balentriek arazoak ekarriko dizkiz...

Diselek ezin izan du esaldia bukatu, zartaka hasi da ontzia, lehen baino askoz bortitzago. Danbada bat entzun da Periren atzean.